

MAITASUNA MAITASUNAREN TRUKE

“Maitasuna maitasunez baizik ez da ordaintzen” izango da Teresitaren armariaren ezaugarria (A, Esk 85i). Gazte honen bizitza eta mezua maitasuna dariola daukagu. Umetatik heriotzaraino, bere bizia eta arnasa, bere egia eta bokazioa, maitasuna izango da. Barnetik maitasunez lirain jantzita ageri jaku bere bizitza osoan.

Maitasuna besterik ez eban xurgatu ugari bere guraso eta etxekeoengandik. Eta zer esanik ez Jaungoikoagandik. Bere izatasuna maitasunean sentitzen zan gustura. “Halakoxea naiz ni: beldurrak atzera eragiten dit; maitasunarekin, ez aurrera egin bakarrik, hegan egiten dut” (A, Esk 80i) dinosku.

Maitasunaren balio absolutuaren jabe dogu. Bere barneko esperientziaren berbak ditugu honeek: “Maitasunik gabe guztia dela ezereza ohartu nintzen, baita gauzarik distiratsuenak ere, esaterako, hilak berpiztea edo herriak konbertitzea” (A, Esk 81i)

Badaki ondo baino hobeto ezin dala maitatu, aldez aurretik maitatua izan ez bada. Hori argi dauko Teresitak. “Txoritxoek beren gurasoei entzunez kantatzen ikasten duten bezala, halaxe bizitzan hezitzeko ardura duten arimengandik ikasten dute hurrek bertuteen jainko-maitasunaren kantu gorena” (A, Esk 53^a) Esker onez eta umiltasunez autortuko dau bere esperien-

tzia pertsonal zoragarria: “Jainko onak atsegin izan du neure bizitza osoan ni maitasunez inguratzea. Nire lehen oroitzape-
nek irribarre eta txera samurren azterna gordetzen dute...
Baina Hark nire inguruan maitasun ugari jarri bazuen, nire
bihoztxoan ere izaera amultsu eta sentibera jarri zuen. Nik
maite maite nuen aita eta ama, eta era askotara agertzen nien,
oso irekia banintzen” (A, Esk 4i)

Buruan sartuta dauka, “izaki guztiek grazia berberak izan
balituzte, inor ez litzatekeela Jainko onaren beldur izango, bes-
tera baizik, maite izango luketela zorateraino; eta maitasuna-
gatik eta ez dardarka, arima batek ere ez lukeela sekula onar-
tuko hari atsekaberik ematea...” (A, Esk 83i). Kontuan hartze-
koa da, Jaungoikoagandik hartutako dohainak harrokeriara
eroanez kalte egin beharrean, beragana erooten ebela (ik. A,
Esk 82i)

Maitasunari beheratzea dagokio

Teresarentzat “Jainko ona ama bat baino samurragoa baita”
(A, Esk 80^a). Kristo Jesusen ondoan ikusten ditu Jaungoikoaren
maitasunaren “zorakeriak”. Bere gizakundea, bere bizitza,
apostoluen oinak belaunikatuta garbitzea, bere errukizko para-
bolak, bere heriotza, bere biztuerea, bere Eliza, bere Eukaris-
tia... horra hor Teresarentzat Jaungoikoaren “zorakeriak” eta
klasikoentzat “mirabilia Dei”.

Maitasunaren maitasunez, “Teresa gaixoaren Jesus” burutik
eginda dirudi: “Herodesek Jesusi leporatu zion krimen bakarra
zoraturik egotearena izan zen... eta nik ere hark bezala pen-
tsatzen dut!... Bai, zoraturik zegoen; haren eromena, errege-
aulki bihurtu nahi zituen hilkorren bihotz gaixoak bilatzean
zetzan. Jesus, kerubinen gainean eserita dagoen aintzazko
Errege!... Jesus, beronen presentziari zeruek ezin eutsi diote-
na! Eroturik izan behar gure maiteak, lurrera bekatarien bila
etorri eta bere lagun, bere kutun, bere pareko egiteko. Jesus,

Hirutasuneko beste bi Pertsona Gurgarriekin hain zorionsua zena!... Guk ezingo dugu sekula hark gugatik egin zuen erokeriak egin” (TG 169).

Jesusen ondoan ikasten dau Teresitak, “maitasunari beheratzea dagokiola” (A, Esk 2i). Liluratuta daukagu Jaunaren xumetasunaz. Haustuta geratzen da Jaungoikoaren umiltasunaz. “Maitasunaren Jainko-Eskalea” (TG 172) deituko deutso harrituta baina ausardiaz.

Honelako Jaungoikoaren aurrean, ez ditu txundituta esker ona eta poz zoramena besterik bihotz barnean sentitzen: “isilik egotea, esker onez eta maitasunez negar egitea besterik ez dugu...Ai! Arima ahul eta akastun guztiek, arima guztietatik txikiak, Teresatxoren arimak sentitzen duena sentiduko balute, batek ere ez luke galduko maitasun-mendiaren gailurrera iristeko itxaropena, Jesusek ez baitu egintza harrigarririk eskatzen, buru-uztea eta esker ona baizik (...) Hona hemen Jesusek guri eskatzen digun guztia. Ez du gure egintzen inolako beharrik, maitasunarena bakarrik baizik” (B, Esk 1i). “Ezin naiz niretzat hain txikia egin den Jainkoaren beldur izan... nik maite dut!... Jainkoa maitasuna eta errukia besterik ez da eta” (TG 266). “Jesus da nire maitasun bakarra” irarriko dau puntzoitxo bategaz bere gelako atean. Neure begiekin ikusi izan neban frase hungigarri hau, Teresitaren gela behin bisitatzeko erregalua izan nebanean.

Jauna zoratzeraino maitatzea

Jaunaren “zorakerien” aurrean, Teresitak ere Jesusgatik itzelezko “zorakeriak” nahi ditu egin. “Oi, Jesus, utz iezadazu esaten neure esker onaren gainezkaldian zure maitasuna zorotasuneraino iristen dela... Nola nahi duzu, bada, zorotasun hau ikusirik, nire bihotza zureganantz ez abiatzea? Nola ezarri mugak nire konfiantzari?” (B Esk 5i)

“Jaunaren Maitasunaren ordain maitasuna bueltatzeko”, bere gurariak ez dauke mugarik. Egite txikiak baina gurariak unibertsoa bezalako irekiak ditu. Gurari inposibleak be bajatorkoz burura. Infernutik be Jaunak maitasun pixka bat jaso dagian, behin betirako bertara jaustea gura leuke. “Gau batean, Jesusi nola adierazi ez nekien maite nuela eta bera alde guztietan maitatua eta goretsia izatea biziki nahi nuela, eta saminez pentsatzen nuen infernutik ez zuela hark sekula hartuko maitasun-egintza bat bera ere. Orduan Jaun ona poztearren esan nion, gogo onez utziko nuela neure burua han hondoratzen, biratoki honetan betiko maitatua izan zedin... Nik banekien honek ez zuela goretsi ahal izango, gure zoriona baizik ez baitu nahi, baina norbait maite dugunean makina bat zorakeria esan beharra izaten dugu” (A Esk 52^a – 52i) Ez da izango beste bat, inoiz holakorik amesetan be egin dauanik! Baita nahi leuke lotan be Jaunagaz amesetan egitea, Berangan, gau eta egun pentsetan bizitzeko. “Neure buruari galdetu ere egiten diot nola izan daitekeen egun osoan Jainko onarengan pentsatzen egonik hartaz gehiago ez arduratzea lotan nagoen bitartean” (A Esk 79a)

Klausurako karmeldar bokazioa ez jakola nahiko dirudi. “Beste bokazio batzuk ere sumatzen ditut neure baitan: gerrari izateko bokazioa sentitzen dut, apaiz, Apostolu, Doktore, Martiri izatekoa. Hitz batez, Jesus, zure alde egintzarik heroikoenak zertzeko beharra, irrika sumatzen dut...” (B, Esk 2i) “Jesus, Jesus! Neure gurari guztiak idatzi nahi banitu, zeure bizitza-liburua utzi beharko zenidake; hantxe kontaktzen dira santu guztien egintzak, eta egintza horiek dira nik zuregatik egin izan nahi nituzkeenak... Oi, ene Jesus! Zer erantzungo diezu nire zorakeria guztiei?” (B Esk 3a)

Eta erantzuna San Paulorengan eta San Joan Gurutzekoarengan aurkituko ditu. Apostoluak azalduko deutso “nola dohain bikain guztiak ez direla ezer maitasunik gabe... Karitatea dela ziurtasunez Jainkoagana eramaten duen dohain bikaina. Maitasunak bokazio guztiak hartzen zituela konturatu nin-

tzen. Orduan, neure poztasun eldarniagarriaren gainezkaldian deiadar egin nuen: Oi, Jesus, ene maitea!... Azkenez aurkitu dut neure bokazioa: Maitasuna da!...” (B Esk 3i)

Eta Joan Gurutzerakoaren eskolan ikasiko dau: “Maitasuna Maitasunez baizik ez dela ordaintzen” (ik. 9 Kanta espirituala); “Maitasun garbizko zirkinik txikienek balio handiagoa dutela Jaunarentzat gainerako egintza guztiak batera baino” (ik. 11 Kanta espirituala); beste pentsamendu eder honek ere zelako argia damotson: “Badakit, oi nire Jaungoiko! Zenbat eta gehi-
go eman nahi duzun, hainbat gehiago irrikarazten duzu” (ik. 15 Eskutitza)

Parabola zoragarriak

Eskerrak Apostoluari eta Fontiverosko olerkari eta mistiko bikainari, Teresitik aurkitu dau atsedena, bere “bihotza asaskatze-ko era” (B Esk 4a). Paregabeko paraboletan azalduko deuskuz bere maitasunezko hartu-emonak Jaunarekin. Ze ederto nabaritzen dituen Teresitaren txikitasuna eta ahulezia eta, aldi berean, Jaunaren maitasunaren erruki hutsaren arteko adiskidetasun loturak. Hunkigarrienak besteak beste honexeek ditugu: “Ihintz tantatxoa eta itsasoa” (TG 141, 142, 143); “loreak jaurtitzen dituen umetxoa” (B, Esk 3i-4i); “maitasunaren aurrezki-kutxa” (142); “umetxoa bakarrik bateltxoan itsas erdian” (TG 144); “txoritxo gaixoa eta Arranoa” (B, Esk 4i-5i); “medikuaren semetxoa” (A, Esk 39a); “errege eta neskatxa pobrearen ezkontza” (TG 109); “lorategiko loretxoa” (A, Esk 2i-3a); “larrosa hostokatua” (TO 51)

Danak ditugu ederrak eta bata bestea baino samurragoak. Danak Jaunaren maitasunaren errukia eta Teresitaren txikitasuna nabaritzen ditue. Baita Jaunak gureganako poza eta gure maitasunaren egarria be. Danetan maitasunaren dohaintasuna izango da nagusi. Posible da Jaunagaz maitasunezko hartu-emonetan bizitzea. Horixe da Teresitaren bihotz garbia eta samurra lilurazten dauan esperientzia pozgarriena.

“Lorak botaten ari dan umetxoaren” parabola, baliteke Teresitaren parabolarik erabatekoena izatea. Txoritxoarena be hunkigarria benetan. Gainera Teresitaren “gau iluna” hobeto agertzen dau. Baina zerua eta mundua, ondo baino hobeto, Jaunaren maitasunean besarkatzen dituen “lorak botaten dituen umetxoarena” izango da. Ze bikain nabaritzen dauan Santuen Alkartasunaren misterioa.

“Jesus, ezin dut sakonago jo neure eskarian; neure gurari ausarten zamapean nekaturik aurkitzearen beldur izango nintzateke... Haur bat izatea dut aitzakia; haurrek ez dute beren hitzen joan-etorriaz pentsatzen. Hala ere, haien gurasoek, aginte-aulkian daudenean eta ondasun neurrigabeen jabe direnean, ez dira ezmezean egoten euren burua bezala maite dituzten euren txikitxoek gurariak betetzeko; haiek kontentatzeko zorakeriak egiten dituzte, ahultasuneraino ere iristen dira... Hortaz, Elizaren alaba naiz ni, eta Eliza Erregina da, zure Emaztea baita, oi jainkozko erregeen Errege hori!... Ez dira aberastasunak eta aintza (ezta zeruko aintza ere) haurtxoaren bihotzak eskatzen dituenak... Badaki aintza bere Senide, Aingeru eta Santuena dela eskubidez... Bere aintza bere Amaren aurpegiak dirdirutzen duen errainua izango da. Maitasuna da eskatzen duena... Gauza bat besterik ez daki: zu maitatzea, oi Jesus!... Egintza distiratsuak galaraziak ditu; ezin du Ebanjelioa aldarrikatu, ezin du isuri bere odola... Baina zer axola dio horregatik? Haren anaiek egiten dute lan haren ordeztan, eta hura, haur txikia, Erregearen eta Erreginaren tronuen ondo-ondoan geratzen da; maitatu egiten du borrokan diharduten bere anaien ordeztan... Baina nola frogatuko du hark bere maitasuna, maitasuna egintza bidez frogatzen baita? Hara! Haurtxoak loreak botako ditu, haien usain gozoz lurrindatuko du errege-tronua, bere ahots zoliz Maitasunaren kanta abestuko du...

Oi, ene Maitea, hona hemen nola iraungiko den nire bizitza!... Nik ez dut neure maitasuna erakusteko beste erarik loreak botatzen izan ezik; hau da, sakrifizio txiki bat, begirada

bat, hitz bat ere alferrik galtzen utzi gabe, gauzarik txikienak ere aprobetxatuz eta maitasunez eginez... Nik maitasunarren nahi dut sufritu, eta baita gozatu ere maitasunarren; horrela botako ditut loreak zure tronuaren aurrean. Ez dut bidean lore bat ere aurkituko zuretzat hostokatu gabe... Gainera, kantatu egingo dut loreak botatzerakoan (egin ote daiteke negarrik hain egintza pozgarria eginez?), kantatu egingo dut, neure loreak arantza artean bildu beharra balego ere; eta zenbat eta luzeago eta zorrotzagoak izan arantzak, hainbat eztitsuagoa izango da nire kantua.

Zertarako litzaizkizuke, Jesus, nire lore eta kantak?... Ai! Ongi dakit nik, euri lurrindu hau, petalo hauskor eta inolako baliorik ez duten hauek, bihotzik txikienaren maitasun-kanta hauek liluragarri gertatuko zaizkizula. Bai, huskeria horiek atsegin emango dizue, irribarre eragingo diote zeruko Elizari, berak bilduko ditu maitasunarren hostokaturiko nire loreak eta zure jainko eskuetatik pasaraziz, oi Jesus!, zeruko Eliza honek, bere haurtxoarekin jostatu nahirik, berak ere bota egingo ditu lore hauek zure jainko-ukituaz neurrigabeko balio hartu ondoren; hark sufrikariozko Elizaren gainera botako ditu honen sugarrak itzaltzeko; honek lureko Elizaren gainera botako ditu garaipena lor dezan!...

Oi, ene Jesus, maite zaitut! Maite dut Eliza, neure Ama. Gogoan dut ´maitasun garbizko zirkinik txikienek balio handiagoa dutela harentzat gainerako egintza guztiak batera baino´. Baina ba ote da maitasun garbirik nire bihotzean? Nire gurari neurrigabeak ez ote dira amets bat, zorakeria bat?... Ai! Horrela balitz, Jesus, argi iezadazu. Zuk badakizu ni egiaren bila ari naizela... Nire gurariak ausartegiak badira, ezaba itzazu, gurari hauek martiritzarik handiena baitira niretzat... Hala ere, nik sentitzen dut, oi Jesus, maitasunaren goren-gorena irrikatu ondoren, egunen batean hori lortzerik ez banu, neure martiritzaren, neure zorakeriaren erdian gozotasun handiagoa izango nukeela aberriko poztasunen altzoan bertan izango dudana

baino, zuk mirari batez lurreko itxaropenen oroitzapena kentzen ez badidazu behintzat. Utz iezadazu, orduan, neure erbeste bitartean maitasunaren mingostasun gozoak dastatzen...

Jesus, Jesus, zu maitatzeko irrika hain atsegina bada, zer izango ote da hura edukitzea, Maitasunaz gozatzea?... Nola irrika dezake nirea bezalako arima hain inperfektu batek Maitasunaren bete-betea edukitzea?... Oi, Jesus! Nire lehenengo, nire Adiskide bakar hori! Zergatik ez dituzu gordetzen irrika amaigabe horiek arima handientzat?” (B Esk 4a-4i)

Konfiantza eta konfiantza

Bere ahizta Paulinari (Aines Jesusenari) idatzitako Eskuizkribu autobiografikoaren amaieran, Teresitak bere buruari galdera hau egiten deutso: “Nola amaituko da 1loretxo zuri baten historia 1hau? Ez dakit... Baina ziur dakidana Jainko onaren errukiak beti lagunduko diola (A Esk 84i).

Jaungoikoaren errukizko maitasunaren testigurik puntakoe-na dogu Teresita. “Niri – esango dau – bere erruki azkengabea eman dit, eta honen argitan ikusten eta gurtzen ditut Jainkoaren gainerako bikaintasunak!... Horrela, guztiak agertzen zaizkit maitasunez argitsu. Justizia bera ere (eta agian, beste edozein baino areago) maitasunez jantzia iruditzen zait... (A Esk 83i).

Andra Mariaren ikono gardenena dirudi gure Teresita. Ze gogoko dauan Zeruko Amaren Magnificat kantua. Batez be, “Jaungoikoaren errukia gizaldiz gizaldi” berba samurrak. Pozik hausnartzen ditu bihotzean.

Kristau bidean aurrera joateak suposatzen dau Jaungoikoaren maitasun errukitsuaren premia geroago eta gehiago eta hobeto sentitzea. Badaki esperentziaz Teresitak kristau santutasuna Jaungoikoaren erruki hutsa dala. Ezin dala momentu bat be Jaunaren erruki barik bizi. Galduta gagoz santutasun bidean

Jaunaren errukiaren premiarik ez badogu onartzen. Burutik kendu behar dogu behin betirako, kristau bidea edo santutasuna ez dala, kirolari batek bezala entrenamenduz edo “pastillen” laguntzaz marka guztiak ondutea. Hori ez da kristau santutasuna. Hori beste gauza bat da. Esan daigun kosmetika edo estetikak edo joga edo ez dakit zer...

Arazo larri hau ze garbi azaltzen deutson Teresitak bere ahizta amabixiri: “Ene, nire ahizpa maitea, mesedez eskatzen dizut zure alabatxoak ulertzeko! Ulertu, mesedez, Jesus maitatzeko eta haren maitasunaren opari izateko, zenbat eta ahulagoa izan, inolako gurari eta bertuterik gabe, are eta hurbilago zaudela maitasun kiskaltzaile eta eraldatzaile honen ekintzetatik... Opari izateko nahi hutsa nahikoa da, baina beharrezkoa da beti txiro eta indarge izaten jarraitzea onartzea, eta hona hemen zailtasuna, ‘non bilatu bihotzez benetan txiro dena?’. ‘Oso urrun bilatu beharra dago esan zuen salmogileak. Ez zuen esan arima handien artean bilatu behar denik, ‘oso urrun’ baizik, hau da, apaltasunean, ezerezean... ai, irau dezagun, bada, dir-dir egiten duen guztitik urrun, maita dezagun gure txikitasuna, ezer ez sentitzea irrika dezagun; orduan bihotzez txiro izango gara, eta Jesus gu bilatzera joango da gu urruti bagaude ere, eta maitasunezkougar bilakatuko gaitu... Ai, neuk sentitzen dudana ulertarazi nahi nizuke!... Konfiantza eta konfiantza besterik ez da maitasunera zuzenduko gaituen... Beldurrak ez al gaitu justiziara bideratzen?. Badakigu bidea eta egin dezagun elkarrekin. Bai, Jesusek grazia bera eskaini nahi digula sumatzen dut, bere zerua eman nahi digu dohainik. Ai, ene ahizpatxo maitea, ulertzen ez baldin badidazu, arima handiegia zarelako da!... edo bestela, gaizki azaltzen naizelako, ziur bainago Jainkoak ez lizukeela zu berak eta bere errukizko Maitasunak hartua izatearen nahia emango, grazia hori zuretzat gorderik ez balu... Edo hobeki oraindik, ziur nago honezkero eskaini dizula, Jesusi eskainirik zaudenez gero,

Jesusek kiskal zaitzan nahi duzunez gero, eta Jainkoak sekula ez du ematen egia bihurtu ezin den guraririk...” (TG 197)

Azken akorde gisa, hona hemen, txikien eta ahulen aldeko Teresitaren otoitz kantua:

“Oi, Jesus! Ezin diedala esan nik arima txiki guztiei zein adierazkaitza den zure onberatasuna!... Nik sentitzen dut, ezinezko batez, nirea baino ahulagoa, txikiagoa den arima bat aurkituko bazenu, atsegin izango zenukeela hura oraindik grazia handiagoz betetzea, hark zure amaigabeko errukian uste osoz bere burua utziko balu. Baina zergatik, oi Jesus, zure maitasun-sekretuak besteengana zabaltzeko gogo? Zeu bakarrik ez ote zinen izan niri horiek erakutsi zizkidana? Eta ezin diezazkiekezu erakutsi besteei ere?... Bai, nik badakit, eta arrenka eskatzen dizut egin dezazula. Zeure jainko-begirada arima txiki askoren gain jaitsi dezazula eskatzen dizut... Zeure MAITASUNAREN duin izango diren opari txikien multzo bat hauta dezazula eskatzen dizut!...” (B Esk 5i)

Azken arnasa emoteko orduan, Jaungoikoak emongo baleusku minutu bat gehiago, izango litzake pozaren pozez ozenki oihukatzeke: “DEN-DENA DA GRAZIA” (KH 5.6.4)

Andoni Olea.